

atera gorria!



bbk =

www.bbkk.es

**BBK26=**  
abantaila eta deskontu pila


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**Deirtzen**

2005ko EKAINA 78. zkia. DOHAIN

**Italiar gelateria**

**Japonian ere euskaraz**

**Lauaxeta  
eta Begoñako Ama**



**Argiñe Aurtenetxe**

**"Auzoko jaiek 'santutxutasuna'  
zabaltzen dute"**




## Larreagaburu-Mina del Morro

*Mina del Morro meategiak izena emon eutson alderdi horri, baina hori baino len Larreagaburu esaten ei jakon muino horri. Lurrean egineko zauri sakonak begi bistan dekoguz. Mugak? Boluetatik Atxurirako bidebarria eta Olleriaseko eta Parroco Unzetako etxeak. Santutxuko etxeen artean be obra asko ikusten doguz, gaur egun lekurik bape ez dagon aldean.*



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



# AURKIBIDEA

▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Italiar gelateria .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta euskerea .....	8	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Taldea: Sorgintxulo .....	10	▶ Mugarra mendia .....	27
▶ Japonian ere euskaraz .....	12	▶ Bilbaomusikan dantzak .....	28
▶ Elkarrizketa: Argiñe Aurtenetxe .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Eskerrak emon bidotzetaz honeiri Bertonekoeri ze, nahitte honegaz beroagaz hau artikulue eskribiduso ein, neska-mutilek ipini dostiez tema batzuk holango refreskanteak eta beraniegosamasnopoder, oingo hilabetie pasako dotela plaien baino hogoto. Lehenengo atara daurie portadan neskato bat beran irribarreagaz bakarrik italianoan mantekauk baino gehidxao refreskaten dabena. Gero ekarri doskuez Japonetik aireakondizionao batzuk da niri bat erregalau dostie, ba, pasauko dot udie aizie arpegidxen ta mantekauk eskuen, zuek burue beroagaz albondiga baten modure darabilzuen bittartien, ajodeerse!

Da ganera kontaten daurie zelan italiano batek ifini daben heladeridxe bat-holango mantekau artesanoakaz, delaletxe daozenak. Lastima horreik mantekauk ez deittuezela etzera ekarten, ze aireakondisioanoagaz ez dot

urtengo kanpora ezta mantekauk erosten be. Da fresko, horreik Sorgintxulokoak zegoazan fresko han etze barruen, han egoten zan ba tenperature ona uderako. Baie aurtengoan ondiñokarren italianoan mantekauagaz edo Gorbeiaiko airiegaz refresakau beharko direz. Ze kale gorridxe aurton be gorri ta gori parauko jaku. Santutxuko jaidxetan be fresko egoten da Basarrateko arbolan azpidxen, hareik bai keizpe goxoa da freskue! Dana dala, handidxe izaten da zelan asko refreskau barik berotu eitten direzen Basarrateko keizpien. Desidratu ez direz egingo ba! Hoba Solokoetxeko kursiloetan apuntau, jantzan ikisi ta Basarraten suelto ta agarrau batzuk eitten badeittuez, holan sikieran airie mugidu eingo daurie ta freskotasune emon ingirukoeri. Gauzek asko, baie nik eskerrak honeik Bertonekoak kontauko dostiezela, ze etzetik mugiduteko ez dekot intenziñominimoripez. Alapues! Atomarbio!

Firmatue: Edurne Axeona

# GURE BAZTERRAK

FAGOAGA AHOTS-ZOLIAREN KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Santutxu auzoan dogu kale hau. Berak lotzen ditu Zabalbide kalea, eta Julian Bolibar eta Begoñako Karmelo kaleen bidegurutzea. Bera dago Begoñako Andra Mariaren ikastetxearen eta Remigio Gandasegi kale-multzoaren artean. Kaleari izena emoten deusona Isidoro Fagoaga Larratxe ahotszoli eta idazlea dogu. 1893. urtean jaio zan Bera Bidasoakonan, eta 1976an hil Donostian. Bera sakatu eban Florentzio Constantino ahotszoli bilbotarrak. Bere lehen opera abestu eban Bilbon, izan bere, Jesus Guridi bilbotarraren "Amaia". Beti bere, beraren berezitasuna Wagner izan zan. Arrakasta bikainak jadetsi zituan, eta

1925. urtean Ameriketara joan zan, Euskadi eta Europako antzoki askotan ibili eta gero.

1936. urtean idazten ekin eutsan, eta erbestera joan behar izan eban. Buenos Airesen jarri eban bere bizimodua, eta handik Gernika eta Euzko Jakintza aldizkariak sakatu zituan. Gaztelaniaz idatzi zituan, eta euskal gaiak jorratu. Beraren lan nagusiak honeek dira: *Pedro Garat, el Orfeo de Francia*, 1948. urtean; *Domingo Garat, el defensor del Biltzar*, 1951n; *Los poetas y el País Vasco*, 1969. urtean; eta *El teatro por dentro*, 1971n.

GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

**BILBAO  
EUSKARAZ**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega

**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Unai Cuevas,  
Itxaso Perez

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona  
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Arrate Diez  
**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98  
**ALE KOPURUA:**  
1.800

2005ko ekaina - 78. zkia.

## Italiar gelateria artigianalearen zaporeak gurean dastagai

Forma, zapore zein kolore guztietako izozkiak  
prestatzen dituzte artisau estilora


*Idiazabal gazta zaporea duen izozkirik probatu duzue inoiz? Oraingoan Mahatserrian bertan duzue aukera. Italiako izozkiaren kulturak bultzatuta, Itxasok eta Diegok Santutxun italiar artisau izozki denda jarri dute Basarretetik kiroldegira doan aldapan. Ideia Italian sortu zen. Itxaso bilbotarra da eta urte betez Italian Diegorekin bizitzen egon zen. Han eguneroko bizitzan izozkia oso arrunta zela ikustean, gurera itzuli dira izozki artisauen kultura hedatzeko asmoz. Diego, berriz, italiarra da eta Veronan, Italia iparraldean, ikasi zuen izozkiak egiten. Gazte bi hauek handik hona etorri eta Bilbon orain arte ez dagoen izozki denda mota bat jarri dute, Bilbon daudenak dendaz gain taberna ere baitira.*

*Testua: Arrate Diez  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

lazko abuztuaren amaieran zabaldu zuten denda. Itxasok dioenez "negua nahiko gogorra izan da, hemen ez baitago izozkiaren kultura hain hedatuta". Hala ere, oso pozik daude martxan jarri duten dendarekin eta Mahatserrian izan duten harrera benetan eskertzen dute gazte bi hauek. Dendaren ardura bien artean daramate baina uda honetan laguntzaile bat ere izango dute.


Haiek egiten dituzte izozkiak eta erabiltzen dituzten osagaiak kalitate handikoak dira, esne freskoa, esnegain freskoa eta fruta erabiltzen dute. Ez dute zaporea emateko osagai artifizialik erabiltzen, esaterako, mailuki izozkia egiten dutenean mailuki fruta erabiltzen dute.

Horrez gain, italiar gelateria horren beste berezitasun bat da izozkiak ez direla apalategian aste bat baino



ezkartzear gain, izozkiak paleta bereziekin zerbitzatzen dituzte. Ez dute hemen ohikoa den forma borobildun dosifikatzailea erabiltzen. Itxasok eta Diegok zapore bakoitzeko paleta bat daukate. Hala, ez dituzte zaporeak nahasten eta garbitzeko erabiltzen den urez ez da putzurik sortzen. Batez ere, higijeneagatik egiten dute.

Izozki dendan bi'apalategi dituzte eta bertan beti daukate gutxienez hogeita lau zapore ezberdin. Diegok Veronan (Italia) ikasi zuen izozkiak egiten, makinak bertatik ekarri dituzte eta produktu gehienak ere hangoak dira. Tamaina aldetik ere hemen kukurutxo handiak jaten ditugu eta ia ez dago izozkirik eta hauek aldrebes egiten dute, izozki kopuru



gehiago egoten. Itxasok zehazten duenez, "izozkiak freskoak jaten dira, izan ere, legez izozki batek urte beteko kaduzitatea du, baina guk ez ditugu horrenbeste uzten hotzarekin gogortu egiten direlako eta zaporea galtzen dutelako. Beraz, aste bat egiten duenean bitrinatik kentzen dugu. Guk produktua bere egoera onenean eskaintzea nahi dugu".

#### ITALIAR ERARA

Italiatik makinaria eta produktu asko


handia ematen dute kukurutxoarekin batera. "Italiako izozki denda famatuek izozkia tarrinetan saltzen dute, ez kukurutxoarekin", gaineratu du Itxasok.

#### ELABORAZIOA

Bi makina dituzte, bata pasteurizatzailea da eta bertan oinarria deitzen dutena pasteurizatzen da. Oinarri honetan azukrea eta esnea nahasten dira, eta horrekin esnedun izozkiak egiten dira. Izan ere, badaude esnerik

ez duten izozkiak, batez ere fruta daramatenak. Bestaldetik, pure moduko bat egiten da (txokolatea, urrak, gazta,...), ondoren oinarria eta purea nahastu egiten dira eta 'mantedadora' izeneko izozki-gailu batean sartzean dira.

Horrek izozkia gorpuzten du eta eginda ateratzen da. Makina horrek lauzpabost minutu irauten du prozesua egiten. Behin izozkia edukitzean,



zero azpiko hogeita hamar gradutara dagoen izozkailu berezian sartzen dute (abatidorea) eta hamabost minutu geroago bitrinara ateratzen dute jendeak ikus dezan. Bitrina hauek zero azpiko hamazazpi gradutara daude. Prozesua amaitu denean izoz-

kia tarrina zein kukurutxoarekin zerbitzatzen da bezeroaren gustura.

Otsailean txokolatearen astea ospatu zuten, munduko hainbat tokitatik ekarritako txokolatearekin egindako izozkiak dastatzeko aukera. Ekainean, aldiz, aste tropikala egin dute eta fruta bereziekin egindakoak jarri dituzte salgai, papaiaz, mangoz, marakuyaz,... egindako izozkiak, hain zuzen ere.

#### IDIAZABAL GAZTA

Itxasok dioenez, "gehien saltzen dena txokolate zaporea da, baina badaude zapore berri batzuk gero eta harrera hobea dutenak. Esaterako, Idiazabal gazta zaporea behin enkarguz egin genuen eta handik aurrera salmentan jarri genuen. Badago ere, gazta tarta zaporea, mailukiak..."

Denda neguan ere zabalik dago eta izozkiez gain gozotegietako produktuak eskaintzen dituzte, eskuz egindako pastelxo txikiak, pasta txikiak... beti ere, izozkia daramaten gozokiak. "Neguan guk egiten ditugu gozokiak eta berezitasuna bilatzen dugu, orijinalak izaten saiatzen gara, ondoko okindegi eta gozotegietan eskaintzen ez dutena egiteko".

Beti entzun izan da izozkiek asko loditzen dutela eta bizio bat besterik ez direla, baina zorionez, mito horrek gero eta sinesgarritasun gutxiago dauka. Itxasok dioenez, "ehun gramoko izozki bolatxo batek ia-ia esne edalontzi baten kaloria berberak ditu. Beraz, loditu nahi ez baduzu, nire aholkua oso argia da: ez utzi izozkia jateari, utzizu kukurutxoak jateari, hori baita gehien loditu dezakeena. Kukurutxo azukrea besterik ez da, eta izozkia tarrina batean ere ederto jaten da. Egon badaude kaloria gehiago duten izozkiak, esaterako tiramisua, alkohola eta bizkotxoak duelako, baina frutaz egindakoak oso osasuntsuak dira".

## Bezeroaren gustuen arabeko izozkiak



Badute ere sagu itxura duten izozki bereziak (izozki bolatxo txokolatez estalia), 'minikonoak' izeneko kono itxurako izozki txikia txokolatearekin, kopak, tartak... Horrez gain, 'semifreddi-ak' ere eskaintzen dituzte. Horiek hotzik jaten dira, baina ez izozturik. Beraz, mousse antzekoak dira eta jan daitezke kopa zein tarta modura. Izan ere, zeuk daramazun osagaiarekin izozkiak ere prestatzen dituzte. Adibidez, egin izan dituzte Vinagre de Modenako izozkiak, pikillo piperrena... Sukaldaritza munduan gero eta gehiago hedatzen ari da izozkien kultura. Bai entsaladarekin edo eta pepino eta olio koipearekin egindako izozkiak, zein izozkiak haragia eta saltsari laguntzeko...

Diego izozki maisua da eta edozein produktorekin egin ditzake izozkiak. Beraz, Itxasoren esanetan "jendeak nahi duena ekar dezake eta guk horrekin izozkiak egiten ditugu. Orain arte ardoak eta gaztak ekarri dizkigute eta Diegok izozkiak egin ditu osagai horiekin. Bezeroaren gustuaren arabeko izozkiak prestatzen ditugu". Horrekin batera, batidoak, goffreak izozkiekin, granizatuak, te hotza, hortxata eta beste hainbat produktu dastatzeko aukera eskaintzen du izozkiaren kulturak.

### Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna Iturriaga, 92  
kazolatxoak eta pintxo goxoak



PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!

# BEGOÑA ETA EUSKERA

*Aurton Estepan Urkiaga Basaraz 'Lauaxeta' jaio zeneko mendeurrena ospatzeko ekitaldiak han eta hemen egin izan dira. Gainera, ekainaren akabuan fusilatu zuteneko oroitzapena berritu egiten da. Bada, gerra aurreko euskal poetarik onena -Lizardi eta Orixegaz batera- badu harreman txiki bat Begoñagaz, argitara eman zuten lehenengo olerkia Begoñako Amari eskaini zion eta.*

## LAUAXETA ETA BEGOÑAKO AMA

1905ean jaio zen Estepan Urkiaga Laukizen. Lau urteko seina zela Mungia joan zen bizitzera. 1937ko apirilaren akabuan faxistek Gernikan atxilotu zuten. Hil bi geroago, ekainaren 25ean, Gasteizen fusilatu egin zuten. Bere laburrean, Urkiagaren bizitza emankorra izan zen eta, euskal literaturaren historian, bere jardunak ohorezko leku bat bermatzen dio mungiar idazleari.

Abade izateko asmoz Durangoko jesuitetara joan zen ikasle. 1921ean Loiolara aldatu zen. Bertan euskaraz idazten zuen talde bat topatu zuen eta eurekin bat egin zuen. Urkiagarekin batera han zeuden Jokin Zaitegi eta Andima Ibiñaga-



beitia, esate baterako. Zaitegik kontatu zuenez, 1924 urte aldean bazeukaten euren testuak non plazaratu. "Guziak Bilboko Jesus-en Biotzaren Deia-n idazten genuen eta, ileko asmoa Agirre-tarlorka-k, eta Peli Areitio-k Berri-On bateratua ta orrelako batzuk kenduta, aldizkaria osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo. Urkiaga-k Basaraz izengoitia zerabilen non-bait". Beraz, artean Lauaxeta barik, Basaraz zen gure idazlea. Izengoiti horrekin sinatu zuen bere lehenengo lana. 1925ean agertu zen eta 'Begoñako Amari' izeneko olerkia zen, hamalau lauko, osatuta.

**ERREPUBLIKAN**  
1928an Lauaxetak jesusen lagundia utzi eta Bilbora etorri



zen. Hemen EAJren 'Euzkadi' egunkarian hasi zen beharrean, Nikolas Ormaetxea 'Orixe' idazle handiarekin batera euskarazko orriaren arduradun gisa. 1931tik aurrera, ostera, berak bakarrik bete zuen zeregin hori 1934ean Imanol Enbeita laguntzaile etorri zitzaien arte. Errepublika sasoi horretan hasi zen bere literatur lan garrantzitsuenak argitaratzen. Alde batetik, 1931n, 'Bide barriak'. Beste aldetik, 'Arrats beran', 1935ean. Euskal poesia moderno eta kalitate handikoa egin zuen, sasoi hartan Europako herrialderik aurreratuenetan egiten zenaren parekoa.

Poeta ez eze, kazetari eta hizlari bikaina izan zen Lauaxeta. EAJren mitin askotan hartu zuen parte eta itzal handia eskuratu zuen bere berba jario trebeari esker.

Jakina gerra ailega zen eta, ezin bestela, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuan jardun zuen. Batailoien eta buruzagiaren arteko lotura lanak egin zituen. Atzerritar kazetariakaz be ibili ei zen hara eta hona. 1937ko apirilaren 29an, Gernikan zegoen, hilaren 26ko bombardaketa basatiaren ondorioak frantses kazetari biri erakusten. Orduantxe harrapatu zuten frankistek, Gernikara sartu berriak. Gasteizen preso eduki zuten eta, trukaketa ahaleginek huts egin ostean, ekainaren 25ean fusilatu zuten.

Lauaxetak poema zoragarriak laga zizkigun. Batzuk gure oroimen kolektiboan dagoz. Ederrenetariko bat bere bizitzaren isla ere bada. Hona hemen amaiera:

*Eta illuntziko bakian  
norbattek darrai kantari:  
"Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari".*

### BEGOÑA'KO AMARI

Bizkaiko estalpe urdiñez jantzia,  
Begoña'ko izarra ta lora garbia,  
argitu, gordetu zeruko bidean  
euskotarren lurra, lur zoragarria.

Aingeruk Begoña'n, mendi maitetsuan,  
eleiz bat zuretzat urrez egin eben.  
Jauregi orretan Euskaldun garbiak  
eskeintzen dituzte biotzak Amari.

Or dagon lurgaña estaltzen dabena  
atxurdin guriak, euskotar semeak  
ñoiz eztabe lur autzagaz zikindu,  
ba igesten ditubez usok lez lokatzak.

Itxas-aldeko izar argi-legun ori,  
igon illuntzean mendi tontorrera,  
Bizkaiko lurrean bidazti galduai  
argitzeko zeru aldeko bidea.

Negu gogorrean arrantzaleari  
emon estalpea ortzia urdindurik,  
eta zeure janzki euskotar alabak  
eundukoaz egin aize-oial on bat.

Laster ur-ontziak lurra dakusaten,  
ta gero bernutzik Begoña'n aldapa  
igon daien itxas erdian negarrez  
eskeñitako itza pozik betetzera.

Euskal amak zure jauregira seme  
onak eskeintzera eroan oi dabez,  
neu ere amatxok gaztea nintzala  
zure magalpera ekarria naiz-ta.


Poema osorik irakurtzeko edo Lauaxetaren  
gainean gehiago jakiteko, jo helbide honetara:  
[www.armiarma.com/zubi/egileak/00221.htm](http://www.armiarma.com/zubi/egileak/00221.htm)



**Halderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.halderapeko.com](http://www.halderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



# SORGINTXULO ZARRATU ETA GERO ERE, BIZIRIK

**Auzoko elkarteek euren babesa berritu diote 75 gazte auzipetuta dauden bitartean**

*Sorgintxulo ez da lokal bat. Hori baino askoz ere gehiago izateko jaio zen, espazio libre bat izateko alegia. Horregatik, Bilboko Udalak gaztetxea zarratu eta sei hilabete geroago, Sorgintxulo ez dago hilda. Auzoko elkarte piloak euren babesa berritu diote gazteen proiektuari. Bitartean, 75 neska-mutil auzipetuta daude egun Sorgintxuloren aldeko ekitaldietan parte izana leporatuta.*

*Testua: J. Larrazabal  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Ekainaren 16an sei hilabete bete ziren Bilboko Udalak Sorgintxulo itxiarazi zuenetik. Egun hori, hala ere, ez zen oharkabean pasatu gaztetxea izan zenaren eraikinaren aurrean. Goizean, gazteek eta auzoko elkarten ordezkariak prentsurrekoa eman zuten. Arratsaldean, burrunbada egin zuten. Sei hilabete geroago, beraz, Sorgintxulo hizpide daukagu.

Auzoko elkarten izenean Javi Perezek (Santutxuko Familia Elkarte-kidea) egin zuen berba. Instituzioen jokaera salatu zuen esanez ba ze gazteak bota eta sei hilabete

geroago oraindik ez direla hasi zahar-etxea egiteko obrak. "Horrek argi eta garbi erakusten du proiektu hori aitzakia baino ez zela. Benetako helburua gazteei euren espazio propioa kentzea zen".

Denetara, 40tik gora elkarte eta taldek agertu diote euren babesa Sorgintxulori. Guztien izenean, Javi Perezek Bilboko Udalaren jarrera agirian laga nahi izan zuen. Izan ere, "hustuketa baketsua egingo zutela esan eta esan ibili ziren baina gaur egun 75 dira auzitarako bidean jarri dituzten gazteak". Eurretatik hogeita hamar prest agertu dira

gizarte lana egiteko, "auzoaren alde behar egiteko gogoaz daudelako".

### AUZIPETUTAKOAK

Sorgintxuloko gazteen izenean Leire Arisketak egin zuen berba. Alde batetik, argi utzi zuen euren proiektua zein den. "Sorgintxulo lokal huts bat baino askoz gehiago da, auzoko gazteok gure proiektuak gauzatu ahal izateko espazioa da, eta horregatik jarraituko dugu antolatuta auzoaren eta gure ametsen alde lan egiteko".

Bestetik, gazteen kontrako errepresioa ere edukitu zuten hizpide.

Arestian esan legez, 75 dira auzipetutakoak. Eurretatik 33 BBKren egoitza zaharra okupatu izanagatik epaitu dituzte. Jakina denez, aratus-teetan egin zuten okupazioa. Beste gazte bati 120 euroko isuna ezarri diote Sorgintxuloren hustuketa egunean argazkiak egin zituelako. Sei neskatila gehiago Sorgintxulon -hustu eta gero- sartu izanagatik epaitu dituzte.

Zerrenda ez da hor amaitzen. Beste 28 neska-mutil Udaletxeko balkoira iritsi ziren gaztetxearen aldeko aldarrikapena egiteko. Haien tizat fiskalak espetxe zigorra eskatu du. Lau gazte gehiago Sorgintxuloren aldeko protesta egin izanagatik epaitu dituzte. Beste lagun bi ere auzipetu dituzte, bat



elkarretaratze baten parte hartu izanagatik eta bestea hustuketa ahalegin baten argazkiak egin zituelako.

Santutxuko Gazte Asanbladak dei egin dio Bilboko Udalari erre-

presioa bertan behera uzteko. "Gazteok sorkuntza eta irudimena landuz gure auzoak berpiztu eta bizi-tzaz bete nahi ditugu", gogorarazi dute.

## ZINEGOTZIARI AURREZ AURRE

Ekainaren 10ean Julen Gabiria galdakaoztar idazleak Zazpikale saria jaso zuen Bilboko Liburu Azokan iaz 'Han goitik itsasoa ikusten da' bere nobela libururik salduena izan zelako. Ekitaldian, Gabiriaren ondoan Jon Sanchez Bilboko Udaleko Kultur zinegotzia egon zen. Julen Gabiriak interneten, bere blogean, kontatu du gertatutakoa. Geroago, beste leku batzuetan -Olegario Makarrovskiren bloga, Sustatu.com-en- ere agertu da.

Kontua da Jon Sanchez zinegotziak egin zuela berba lehenengo. Idazleari lora batzuk

bota ostean, Gabiriaren txanda iritsi zen. Galdakaoztarrak gai bi ekarri zituen hizpide Sanchezen gustukoak izan ez zirenak. Izan ere, bi pertsona moduri eskaini ziren saria: Arestitarrei eta... Sorgintxulotarrei. Azken horien gainean esan zuen ba ze "gaztetxe bat baino gehiago zen. Bertan biltzen ziren euskera taldeak, auzoko bertso-eskola.. zinea zegoen... eta Santutxuko biblioteka bakarra... Baina aurrean itxi egin "da". Lekukoek diotenez, ez ei zitzaien Jon Sanchez aitamena batere gustatu. Gehiago jakin gura duenak: [www.eibar.org/blogak/gabiria/137](http://www.eibar.org/blogak/gabiria/137)

santutxuko herriko taberna  
Iturriaga 96.  
Gosari bereziak:  
Kalea + pintxoak 1,50 €.  
Euskal Herria AURRERA!!

Garraizar  
JESUS GALINDEZ, N.º 10  
Tel: 94 43 33 250 GARRAIZAR - BILBO

Agapi  
Dekorazioa eta eskaiola  
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak  
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk  
Tlfnoa: 944336916 - Sakelakoa: 651709114  
SANTUTXU - 48006 BILBO

DEBERRTO

ERTON DUGU

# JAPONIAN ERE EUSKARAZ

スウェーデンヨーロッパ第一の  
青果輸出国

Ekainean euskal kultura zabaldu dute  
Aichiko Erakusketa Unibertsalean

Jiromi japoniar euskalduna BERTON irakurtzen

Testua: Iratxe Ruiz

**Martxoaren amaieran aurtengo Expo Unibertsalak atek ireki zituen Japoniako Aichin. Bertan, ekainaren 13tik 19rako astean euskal folklorea eta bizimodua ezagutzera eman zuten. Ahalegin horretan trikilariek, alboka zein txalaparta joleek, eta dantzariak bat egin zuten. Hilaren 16an, egun nagusia izan zen. Bertaraino Eusko Jaurlaritzaren Turismo arduradunak hurbildu ziren, besteak beste. Hantxe egon zen BERTON aldizkaria, Begoñako errepublikan kontatzeko gero.**

**UDA 2005**

KANPING ETA BUSA  
EUROPAN ZEHAR.  
15 EGUNEKO BIDAIAK  
EUSKARAZ

Mikelizargi@euskalnet.net

**Izargi Bidaiak**

GRUPO STAR  
www.ibiltari.com  
Burrutaga, 69  
Tel. 94 473 00 45  
Fax 94 412 07 28  
48004 SANTUTXU - BILBO

**KAIKU**  
Maendako Herrien Batea  
Ansuaga 1 Santutxu



**ADI**  
ASESORIA  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL  
JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak  
kontabilitatea juridikoa  
merkatalgintza**

Japoniako kulturak euskaldunarekin nolabaiteko harremana baduela frogatu genuen. Horrela, 150 milioi biztanle baino gehiago dituen irla horren iparraldean hizkuntza bat mintzatzen da euskararekin antza handia ei duena.

Gure musika eta dantzekiko ere interes izugarria erakutsi zuten japoniarrek. 50 minutuko ikastaro trinko baten ostean, hogeit bat pertsonako talde bat 'eskudantza' eta 'San Petri'



Euskal dantzak erakutsi zizkieten japoniarrei



**Zer hobeto  
euskara ez  
ahazteko  
Mahatserriko  
aldizkaria  
irakurtzea  
baino!**

dantzatzeko gai izan zen. Zoragarria! Gainera azalpenak Naroa Garciak ematen zizkien, euskara hutsez.

**JIROMIREKIN**

Bere hitzak japonierara itzultzeko lanak Jiromiren esku zeuden. Jiromi aspaldi etorri zen lehenbizikoz Euskal Herrira. Gure gizarteak txunditu zuen, baita hizkuntzak ere. Gipuzkoan euskara ikasten hasi eta gaur egun ederki mintzatzen da.

Euskaraz egiteko ohitura ez galtzeko, urtean behin gurera bueltatzen saiatzen da. Bere izena zein

den galdetutakoan, Maritxu deitzea gustatzen zaiola aitortu zigun. Zer hobeto euskara ez ahazteko Mahatserriko aldizkaria irakurtzea baino! Kuriositate handiz nongo argitalpena zen galdetu zigun, BERTONen azken zenbakiari begiradaxo bat botatzen zion bitartean.

Euskal Herriko Txalaparta Taldeko lagunek japoniarrek perkusio instrumentu honekiko duten trebetasuna azpimarratu zuten. Erritmoa primeran jarraitzen zuten... perkusio zale ezin hobeak baitira.

Hamabost bat orduko bidaia

dago Japoniara. Jakina, gure kultura hedatzeaz gainera, eurena ezagutzeko aprobetxatu genuen. Nagoya hiri komertzialaren eraikin erraldoiak, bertako gaztelua, lurrazpiko denda andana eta abidura handiko tren bisitatu genituen. 350 kilometro orduko abidura hartuta Kiotora 30 minutuan heldu ginen. Budisten eta sintoisten tenpluak dira nagusi, Japoniako hirugarren hiri handiena den Kioton. Harrigarriena, urrezko pagoda da, izenak berak dioenez, urregorritz egina.



**urretxindorra**  
megadenda

9'30etatik  
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparagirre, 26 (48011 Bilbo)  
Tfnoa: 94 4240228

urretxindorra@megadenda.com  
www.megadenda.com



iven a aprender euskara!  
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet, 9 Santutxu  
4731460

Arbidea, 21 Txurdinaga  
4117656

## KOMUNAK ETA KARAOKEAK

Japoniarrak oso zorrotzak dira garbitasunarekin, baita ingurumenarekin ere. Datu esanguratsua da, esaterako, irailean, hamazazpi hektareako hedadura duen Expoa bukatu bezain laster lehengo paisaia berreskuratzeko konpromisoa hartu dutela antolatzaileek. Zuhaitz bakoi-tza zegoen lekuan egongo dela, alegia. Bestalde, atzerritarrei laguntzeko prest agertzen dira beti. Bi hitz euren teknologiaren inguruan. Puntakoa da. Komunera sartzerakoan aurkitu ahal duzuna kontatuko dizuegu jarraian: atea zabaldu eta komuneko tapa bakarrik igo-



Kiotoko Urrezko Pagoda, laku baten urre gorriz egina



### KIROL NAZIONALA

Eta sabela bete ostean japoniarren derrigorrezko ohiturara: karaokera. Ez da aisialdirako plan bat, benetan txertatuta dagoen usadioa baizik. Negozio bat itxi ostean, esate baterako, karaokera joaten baitira enpresariak. Jendearen aurrean kantatzeari ezin diozu muzin egin, hain baitira burugogorak...

Eguzkia lehenengo ikusten duen herrialde honetara bidaiatzeko asmorik badu-

tzen da, musika klasikoaren doinuak hasten dira eta behin jesarrita masajeez goza dezakezu. Esperientzia bat! Kar, kar. Tokian tokiko janaria dastatzea gustuko baduzu, jaki oso desberdinak aurkituko dituzu Japo-

zu, jakin egizu bertan komunikatzeko zailtasun handiak edukiko dituzula. Gehienek ez dakite japonieraz besterik. Beraz, ingelesa eurentzat txineraren antzekoa... Dena den, ez larritu, mimika bidez edonora joan daiteke! Sayonara.

## e l k a r r i z k e t a

## ARGIÑE AURTENETXE

“Auzoko jaiek 'santutxutasuna' zabaltzen dute”

Bere gaztean, Argiñe Aurtenetxek urte asko eman ditu Santutxuko Jai Batzordean sartuta. Aurten, gainera, Bilboko auzoetako jai batzordeen koordinadoran -Auzotarrok- bozeramale lanetan ibili da. Laster dira hemen Santutxuko jaiak eta antolatzaileek azken prestaketa lanekin dihardute, txupinazoa jo orduko dena txukun edukitzeko. Sasoi zailak dira auzoetako jaientzat, diru premia larriak dauzkate eta. Hala ere, Aurtenetxek dioskunez, onuragarriak dira, oso, auzoentzat.

Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona





**Santutxuko jai batzordean eta Auzotarroken zabilta. Zein da Santutxuko jaien egoera?**

Santutxuko jaiak lehen indar itzela zeukaten. Orain dela urte batzuk, bost edo sei urte, jaitsiera bat nabaritu genuen. Auzoan kezkatu ginen, ea zer gertatzen zen gure jaiekin, eta harrez gero lehengo indarra berreskuratzeko lanean ari gara. Orain zelan dauden? Laster ikusiko dugu. Gu iazkoarekin pozik gaude. Hobera edo okerrera egin dezaketela? Bai. Edozer gauza gerta daiteke.

**Gorabeherak daude. Jai batzuek gora, beste batzuek behera,**

**urteen arabera. Hor modek edo fetxek eragina edukiko dute...**

Bai. Denetarik dago. Alde batetik, jaiak prestatzeko dirua behar da. Diru barik ezin duzu gauza handirik eskaini. Bilboko Udalak ematen duen diru laguntzarekin, barbarako, ezin da ezer egin. Ez da gauza bera jaietako kontzertura talde ezezagun bat ala talde potente bat ekartzea. Horrek eragina dauka. Bestetik, modak egon badaude. Herritarren gustuak aldatu izaten dira musikan, aisialdian, ... Gu egokitzen saiatzen gara baina batzuetan ezinezkoa da. Zelan egokitu txosnak boteloiaren fenomenora? Ezin da. Eta bestetik,

kalean jaia egiteko ohitura urte batzuetan krisian egon da, behera egin du. Orain berriro suspertzen ari dela ematen du.

**Txosnek erreferentzialtasuna galdu dute?**

Txosnak beti izango dira erakargarriak. Baina garai baten bai, apur bat jaitsi ziren.

**Jende gazte gutxiago dago orain lehen baino, demografia kontua hutsa da. Jaiak gazteentzako bakarrik dira?**

Argi dago denontzat antolatzen dituguna. Adin eta gustu guztientzako

ekitaldiak prestatzen ditugu. Hor daude, umeentzako jolasak, gastronomia lehiaketak, mus eta tute txapelketak, ... Egitarauak denetariko ekitaldiak batzen ditu eta edonor gustuko gauzak edukitzea nahi dugu. Egia da, hala ere, egunez denetariko jendea badabil, gauaz gazte jendea dabilela gehien bat.

**Zer dira jaiak auzo batentzat?**

Auzoaren arabera. Santutxun jai herrikoiak egiten saiatzen gara. Guretzat jaiak ez dira Udalaren eskutik emanda datorren zerbait. Jaiak ez ditu Udalak antolatu behar, ekitaldiak ez ditu Udalak erabaki behar.

Guk, auzoko taldeok eta herritarrok erabaki behar dugu zelako jaiak nahi ditugun eta guk geuk prestatu eta egin behar ditugu. Adibidez, Santutxun garrantzi handia ematen diegu koadrilei. Eurak batzen dira eta erabakitzen dute igual mozorro egun bat egin nahi dutela, edo herri kirolak antolatu gura dituztela... herritarren nahietatik ateratako jaiak dira.

**Eta zelangoa izango litzateke auzoa jai barik?**

Jaiak giroa eta elkarlana sortzen dute. Jaiak egiteko elkarte pilo batek lanean dihardu, prestakuntza lanetan jende asko elkartzen da eta jaiak 'santutxutasun' sentimendua sortzen dute. Auzokideen arteko hurbiltasuna sortzen dute. Eta auzoan dinamika eragiten ditu. Bizitasuna dira.

**Zenbat lagun biltzen zarete jai batzordean?**


Jai batzordean auzoko elkarteetako jendea dago, baina pertsona horien atzetik elkarteak eurak daude. Beraz, jende asko dago jai batzordearen atzetik. Gaur egun elkarteok hama-

bost bat izango dira.

**Jaiak antolatzeko orduan zeintzuk dira arazo nagusiak?**

Arazo nagusi-nagusia dirua da, finantzazioa. Udalak mila euroko diru laguntza ematen du, kontu egizu. Mila euroekin gaur egun ezin da ezer antolatu. Eta jai batzordeak azpiegitura jarri behar du, komunak paratu behar ditu, argia,... jaiak egin ahal izateko behar den guztia. Eta kontuan hartu Santutxuko jaiak aste-buru bikoak direla eta aste barruan ere egitaraua bete prestatzeko ahalegina egiten dugu. Horren ondorioa da programa betetzeko eta ordaintzeko arazoak edukitzea ditugula. Hori bat, dirua. Eta gero, Bilboko Udalak ere lagundu barik trabak ipintzen ditu, dela ordutegia, dela kale bat moztu beharra daukagunean, ... Horrela lan nekeza da auzoko jaiak antolatzea. Buruhauste handiak ematen dizkigu.

**Bilboko Udalak auzoko jaietako araudia onartu zuen iaz. Zertan da?**



Indarrean dago. Araudi horrek ere arazoak ekarri dizkigu. Orain Bilboko Udalarekin zuzenean tratatu beharrean, barrutiko kontseiluarekin hitz egin behar dugu edo zer gauza egin ahal izateko. Zer gertatzen den? Kartel batzuk ateratzeko orduan edo zer edo zer baimendu behar dutenean, barruti batzuetan ez dago ezelango arazorik, beste batzuetan inoiz ez dute baimenik ematen, eta beste batzuetan gaur bai baina bihar ez edo zuri bai baina niri ez. Gure ustez, erabaki arbitrarioak izaten dira, inongo irizpiderik jarraitu barik.



Hor dago, esate baterako, manifestua, azken urte betean babes sozial handi-handia lortu duena. Eta azkenik, gure artean koordinatzen gara eta gure baliabideak denon artean hobeto aprobetxatzen ditugu. Adibidez, auzo bateko jai batzorde batek aulkiak badauzka, edo eszenatoki bat,... besteok posible bada hori erabiltzen dugu. Horrela, dirua aurrezten dugu eta jai hobekoak egiteko aukera daukagu. Azken finean, hori da helburua.

**Hain gogorra da**

**jai herrikoen kontrako erasoa?**  
Itzela. Santutxun igual ez dugu igarri. Gure kasuan eraso bortitzik ez dago baina utzikeria eta laguntza eza bai. Bilbon, Aste Nagusian gertatu denarekin edo Inauterien desfilearen kasuan, azken urte biotan ederto ikusi dugu: eraso gogorra da.

**Zein da errezeta Santutxuko jaietan ondo pasatzeko?**  
Kar, kar. Nik zer dakit ba! Irten, naturalki, eta ondo pasa... Aukeratu zuri gustatzen zaizuna eta gogo handiz joan!

**Auzotarrok koordinadoran zenbat jai batzorde zaudete? Zertan zabiltzate?**  
Denetara Bilboko hamalau auzotako jai batzordeak gaude. Hiru lan esparrutan dihardugu. Alde batetik, Bilboko Udalarekin tratatu beharreko arazo orokorretan Auzotarrokek jai batzordeak ordezkatzeko dituzte. Horrela irizpide bateratuak erabiltzen ditugu eta Udalaren aurrean solaskide bakarra eta indartsuagoa gara. Bestetik, jai herrikoiei bultzada bat emateko ahalegina egiten dugu.


**Jaiak ahultzean herri mugimendua ahuldu nahi dute?**  
Bai. Argi dago auzoetako txosnak ez balira gustatzen ez zaizkien taldeenak ez zutela trabarik ipiniko. Baina azken finean, jaien kontra jo dute. Eta beste aldetik, txosnek itzelezko giroa ematen dute. Batzuetan gertatzen da dirurik eman ez eta hala ere txosnak paratzen dituzte. Horrelako kasuetan jendea hor dabil lanean musutruk txosnek jai giro ederra sortzen dutelako.

**Hamar galdera labur**

Pelikula bat: 'El experimento'.  
Kantu bat: 'Txoria txori'.  
Liburu bat: herri ipuinak gustatzen zaizkit.  
Mendia ala hondartza? Biak.  
Izen bat: Lide.

Kirol bat: Patinatzea.  
Janari bat: Kroketak.  
Leku bat: Txina.  
Jai batzuk: Santutxukoak!  
Amets bat: Hemen dagoen arazoa konpontzea.

**Bilbo auto lasterketa bateko zirkuitua izango da. Zelan ikusten duzu?**



**ANDER (LAUDIO)**  
ONDO IKUSTEN DUT. JENDEAREN ZAK EGITEA ONDO DAGO.

**IRATI (TXURDINAGA)**  
BERDIN DIT. PRESTIGIOA EMATEKO ETA TURISMOA ERAKARTZEKO EGITEN DUTE BAINA GURE BIZIMODUA ETA LASAITASUNA OZTOPATUKO DU.



**ITSASNE (SANTUTXU)**  
EZ ZAIT FORMULA-1 GUSTATZEN ETA EZ ZAIT BATERE INPORTA KARRERA HORI.

**JANIRE (SANTUTXU)**  
ONDO. PRESTIGIOA EMATEN DU ETA GAI-NERA NIRI FORMULA-1 GUSTATZEN ZAIT.



**JON PAUL (TXURDINAGA)**  
ONDO IKUSTEN DUT. SEGURUENEZ BERTAN EGONGO NAIZ. BAINA SARRERAREKIN IZANGO DA, EZTA? IGUAL ETXE BATEN GAI-NETIK IKUSI BEHARKO DUGU.

**PABLO (OTXARKOAGA)**  
ONDO DERITZOT. BAINA EGIA DA MOLESTIAK EKARTZEN DIZKIGULA, BATEZ ERE JARRI DITUZTEN HESIENGATIK. BAINA, OSTERANTZEAN, ONDO.



**LANDER (SANTUTXU)**  
DIRU PILO BAT GASTATUKO DUTE HORRETARAKO ETA DIRU HORI BESTE GAUZA BATZUETARAKO ERABIL ZITEKEEN.



**TEO (SANTUTXU)**  
JENDE ASKO EKARRIKO DU AUTO LASTERKETA HORREK.

A K A R K A

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Santutxu jaietan murgilduko da uztailaren 9tik 17ra

Uztailaren 9an Basarrate plazatik zerura igoko da aurtengo Santutxuko jaietako txupinazoa. Ostean, bederatziguneko egitaraua zabalduko da auzo horretako bizilagun guztiei zein inguruetatik hurbilduko direnei irekia. Jai giro animatuaz gain, umeentzako jolasak, gastronomia

lehiaketak -marmitako eta bakailao-, antzerki lan bikainak, kontzertuak -Ene Bada, Parabellum,...-, dantzak, bertsolariak, zinema... Edozeinen gustuak asetzeko lako programa atondu du Santutxuko Jai Batzordeak. Hona hemen programa, egunez egun.

### LARUNBATA, 9

15:00. Koadrilen BAZKARIA Basarraten. Postre Lehiaketa. Bazkaldu ostean ERNALREN eskutik POTEKO berezia. Ez ohiko poteoa, taberna bakoitzean zerbait ezberdina: Bertsolariak, filminak,....

19:30. SAMA SIKU FANFARREA eta SANTUTXUKO TXISTULARIAK Karmelo plazan.

20:00. SEGIZIOA Karmelo plazatik hasita. Sardinak Aranbarri Musikoa plazan New Scalaren eskutik.

20:30. PREGOIA, TXUPINA eta banderak jasoko ditugu Basarraten.

23:00. AITZAMA taldearen eskutik, BERBENA Basarraten.

### IGANDEA, 10

09:00. III. Marmitako txapelketa hasiko da Basarraten.

11:00. ARDOA BARRURA FANFARREAK auzoa alaituko digu. Liburuaren merkatu txikia Sorgintxuloren eskutik.

12:00. Herri Kirolak Karmelo plazan. Marmitako txapelketaren lapiko bilketa.

18:30. Nesken arteko FUTBITO TXAPELKETA.

19:00. BILBOKO GAITEROAK auzoan zehar. Ume jolasak Aranbarri Musikoa plazan, New Scalaren laguntzaz.

19:30. Emakumeek egindako sormen lanen erakusketa. ANTZERKIA Basarraten, XABIER LARREA: Hegan antzez-lana.

23:00. Karmelo Plazan ZINEMA. Arterderretako ikasleek egindako LABURMETRAIAK.

### ASTELEHENA, 11

Naziotasun eguna. EHNA tramitatzeko aukera 17:00etatik 20:00etara Santutxuko Familia Elkarteko lokaletan (Iturriaga 55 Behea, ezk.)

16:00. Eguraldia lagun, PISZINA Basarraten.

17:30. Ume jolasak eta rokodromoa Karmelo plazan.



18:00. FUTBITO txapelketa Hockey pistan.

19:00. NAGUSIENTZAKO BERBENA Basarraten. ARAN-TXA eta PANTXO taldearekin, SAMA SIKU FANFARREAK auzoa alaituko digu. Umeentzat TXO-TXONGILOAK: IRRINTZI PRODUKZIOAK-ek "Mus-hika"

lana eskainiko digu Karmelo plazan.

21:30. Emakumeen afaria Basarraten.

### ASTEARTEA, 12

12:00etatik aurrera Basarraten paellak egiten hasiko gara.

14:30. Basarraten koadrilen PAELLA TXAPELKETA.

16:00. Eguraldia lagun, PISZINA Basarraten.

17:30. Koadrilen arteko Herri Kirolak Karmelo plazan.

18:00. FUTBITO txapelketa Hockey pistan.

18:00. MUS eta TUTE txapelketak Basarraten. IGELAN egiteko aukera ere egongo da.

19:00. GARGANTUA Karmelon. BOMek antolatutako jokuak Karmelon.

20:00. BILBOKO GAITEROAK auzoan zehar. SANTUTXUKO TXISTULARIAK. Santa Marta eskolan (eskilara mekanikoetan) ANTZERKIA, FTI ANTZERKIOLA IMAGINARIOA "Fitola Balba Karpuki tui" antzez-lana eskainiko digu.

21:00. Auzoko taldeen KONTZERTUA Basarraten, AMARGOR, DARK FANTASY eta SHISHA.

### ASTEAZKENA, 13

16:00. Eguraldia lagun, PISZINA Basarraten.

17:00. Ume jolasak eta rokodromoa Karmelo Plazan.

18:00. FUTBITO txapelketa Hockey pistan. MUS eta TUTE txapelketak Basarraten. IGELAN egiteko aukera ere egongo da.

18:30. GRAFFITI erakusketa Karmelo Kanean.

19:30. SANTUTXUKO TXISTULARIAK.

### OSTEGUNA, 14

Mozorroa janzteko eguna

16:00. Eguraldia lagun, PISZINA Basarraten.

18:00. FUTBITO txapelketa Hockey pistan.

18:00. XAKE partidak Basarraten Zuri-Baltza Xake taldeak antolatuta: aldeberekoak Euskadiko jubenil txapeldu-

naren kontra, Jon Angulo Martinez eta begiak estaliak Francis-

co Javier Solabarria adituaren kontra. TIRAGOMA txapelketa Basarraten.

MUS eta TUTE txapelketen finalak Basarraten. IGELAN egiteko aukera ere egongo da.

19:00. KALE ANTZERKIA AZULKILLAS taldearen eskutik "Danzas de aire" antzez-lana.

20:30. PLAY BACK txapelketa Basarraten. Hori bukatu eta gero KOADRILEN POTEOA.

21:30. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

23:00. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.



REAL eta GAITEROS RIOJANOS, Euskal Herriko GAZTE DI DANTZARI TALDEA eta BILBOKO GAITE-ROAK, Valladolideko DULZAINEROS EL ENCINAR eta Euskal Herriko BIZKAIKO DULTZAINEA-ko Javi Santamariaren eskutik. 19:30. Hockey pistan GRUPO DE DANZAS CAMINO REAL eta GAZTE DI DANTZARI TALDEAREN dantza emanaldia.

20:00. Koadrilen poteoa.

21:30. Errepresaliatuen aldeko BRINDISA.

21:45. KALEJIRA.

22:30. KONTZERTUA, EZEIN eta ENE BADA Basarraten.

### IGANDEA, 17

09:00. XLVI. BAKAILAO txapelketaren hasiera Basarraten.

12:00. MAIRUEK ERRALDOLEN eta Herri-oboe joleen KALEJIRA: BILBOKO GAITEROAK (Nafar Gaita), GAITEROS RIOJANOS (Gaita), GRALLERS CLAU DE MAR (Catalunyako Gralla), DULZAINEROS EL ENCINAR (Gaztelako Duzaina) eta BIZKAIKO DULTZAINEAko Javi Santamaria.

12:00. DUNBOTS FANFARREA auzoa girotzen.

12:00. BAKAILAO txapelketaren kazola bilketa eta sari banaketa.

13:00. Herri-Oboe joleen ERAKUSTALDIA Basarraten.

18:30. Koadrilen arteko TRIBIALA Basarraten.

20:30. BERBENILLA.

### ASTELEHENA, 18

BARRAKETAN UMEEN EGUNA.



# SANTUTXU SPORT

## Kirolak

## Punta-puntako kirol markak

# SPORT

Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01




## TUTULU KALEKO ESKAILERAK, ITXITA.-

Obrak direla eta, hamar hilabetez itxita egongo dira Tutulu eta Bakio eta Maurice Ravel kaleak lotzen dituzten eskailerak. Sarbidea Aldamiz Mendia eta Balendin Berriotxo kaleetatik egin beharko da. Tutuluko 12 eta 14. zenbakiko bizilagunek bakarrik edukiko dute pasatzeko eskubidea.

## JULIA BERROJALBIZ SARIA, TXURDINAGA BEHEKOARA.-

Txurdinaga Behekoa institutuak jaso du aurtengo Julia Berrojalbiz saria. Bilboko Udalak ematen ditu sari horiek eta kasu honetan etorkinak errazago integratzeko programagatik lortu du Txurdinagako institutuak. Saria 6.000 eurokoa da.



## ASTE NAGUSIKO KARTELA MAHATSORRI BIK EGIN DUTE.-

Adur Larrea eta Unai Requejo mahatsorriek egin dute datorren Aste Nagusia iragarriko duen kartela. Bozketa bidez erabaki da, lehen aldiz, kartel irabazlea. Ederra da, dudarik ez!

## MASAJE ETA YOGA IKASTAROAK.-

Amaitu dira Asapala Euskara Elkar-teak antolatutako yoga eta masaje ikastaroak; otsailetik maiatzera bitartean egin dira Begoñako Udaltegiaren martitzen eta barikuetan. 12 lagunetik gora ibili izan dira astero-astero ikastaro bakoitzean eta erantzuna ikusita datorren irailetik aurrera berriro martxan jartzeko asmoa agertu dute Asapalakoek.




## SAN JUAN SUA.-

Antzinako ohitura berritu zen gurean Doniene bezperako gau luzean. Sua han eta sua hemen, jendea inguruan saltoka eta kantuka. Gure beldurrak sutara aurrerantzean denok hobeto bizi gaitezen. Hala bedi! Argazkian, San Juan sua Txurdinagan.

## BEGOÑAKO EKAIN KULTURALA.-

Ekaineko barikuetan Begoñako Udaltegiak antolatuta hainbeste kultur ekitaldi egin dituzte. Berbarako, argazkikoa. Hilaren 10ean 'Lesladi's' taldeak 'Biri bila' kale antzerki ikusgarria egin zuten basilika osteko plazan. Akrobaziez betetako ikuskizun horrek Leioako kale antzerkiaren jaialdiaren lehen saria eskuratu berria zeterren.



# "EUSKARA ETORKIZUNEN EUROPA"

BRIÑAS ESKOLAKO GAZTETXOAK GASTEIZKO LEGEBILTZARREAN EGON ZIREN EKAINAREN 13AN

Testua: Briñas eskolako 5B. maila  
Argazkiak: Briñas eskola



Kristina Yelamos, Itsasne Herrero, Leire Santos, Jon Ander Lopez, Paula Valdivia, Idoia Murias eta Saioa Gorbeña Eusko Legebiltzarrean

**Hurrengo larrietan Briñas eskolako 5.B mailakoek idatzitako testua topatuko duzue. Gaztetxoak Eusko Legebiltzarrean egon ziren ekainaren 13an EAEko beste ikasle askorekin batera. Bertan, denon artean, euskararen aldeko idatzi bat onartu zuten. Hona hemen euren kontakizuna.**

Guk otsailetik ekainaren 13 arte hizkuntzei buruzko gaia landu izan dugu. Beren kulturak ezagutu ditugu eta hizkuntza batzuk desagertzen ari direla ikasi dugu. Eta pentsatu dugu euskara ez dakienei guk irakatsi behar diegula.

Desagertzeko zorian dauden hizkuntzak jendeak erabiltzen ez dituelako dela jakin dugu eta desagertzeko zorian ez daudenak, ordea, asko hitz egiten direla. Hizkuntzak munduan zehar

zabaldu behar dira.

Hizkuntza ofizialak asko hitz egiten dira, baina ofizialak ez direnak gutxiago erabiltzen dira eta desagertzeko arriskua gehiago dute.

## LEGEBILTZARREAN

Apirilaren 20an gutako lau Gasteizera joan ginen Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkura prestatzera. Emanaldiak taldeka prestatu genituen, beste eskoletako umeekin batera. Gero bozkatu genuen

paperak banatzeko. Gutako bati bozeramailea izatea tokatu zitzaion.

Osoko Bilkura ekainaren 13an egin genuen Eusko Legebiltzarrean. Gure bozeramailea oso urduri zegoen. Baina bere testua irakurtzen hasi eta urduria pasatu zitzaion.

Osoko Bilkuran euskararen aldeko testu bat bozkatu eta onartu ostean Eusko Legebiltzarreko lehendakari Izaskun Bilbao andreari eman genion.

# Txurdinagako eskolako gurasoek udalekua antolatu dute

**Txurdinaga eskolako guraso elkarteak udalekuak antolatu ditu aurten lehenengoz.**

**Jose Alonso elkarte kideak kontatu digu zelan egin duten.**

Testua eta argazkia: Alberto Ugarte

Noiz otu zitzaizuen udalekua antolatzea eta zergatik?

Bi arrazoi nagusi aipa ditzakegu.

Batetik,

umeen oporraldia luzea izanik, gurasook ezin izaten dugu behar beste denbora eman eurekin. Hortaz, euskaraz, euren adineko umeekin, gustura eta mugimenduan nahi ditugunez, udalekuena irtenbide egokia dela uste izaten dugu.

Bestetik, gurasoetako batzuk aurreko urteetan beste eskola batzuetan antolatzen zituzten udalekuetara bidaltzen genituen umeak eta, orduan negu honetako edozein egunetan, batek ozenki galdetu zuen: Eta gure eskolan, zergatik ez?

**Oztoporik topa duzue?**

Honelakoetan, hau da, kontu bat lehenengo aldiz egitea planteatzen denean, ez da erraza izaten denok ere egingarria ikustea. Oztopoak baino zalantza asko izan da. Hori dela eta, hasieratik argi ikusi dutenek dute meritu handia, bestela ez zatekeen aurrera aterako, benetan.

**Zenbat umek eman dute izena?**

Hasiera batean, gehiago izango zirela espero bagenuen ere, hogeitatu izango dira. Ez dakigu lehenengoz

antolatzen delako izan ote den. Aurtengo baloratutakoan, datozen urteetan zer egin aztertu beharko da. Edozelan ere, noizbait hasi behar.

**Zeintzuk ekitaldi antolatu dituzue?**

Umeak bederatzietan joango dira eskolara eta hor, taldeka, hainbat

dabilela esan dezakegu. Bileretara, berriz, askoz gutxiago joaten da eta honek asko zailtzen du ekintzak, zaharrak eta berriak, antolatzea eta aurrera eramatea.

**Zeintzuk ekintza egiten dituzue urtean zehar?**

Eskolaz kanpoko hamaika ekintza. Eguerdietan, musika, txikiritmoa, antzerkia, euskal dantza, xakea, txistua eta bertsolaritza eta, arratsaldean, hainbat kirol jarduerak,

besteak beste, esku pilota, karatea, futbola, saskibaloia. Asteburu batzuetan, mendirako irteerak ere izaten dira. Bestalde, badi- ekitaldi berezi eta esanguratsu batzuk: Abenduan, Liburu eta diska azoka; Inauteri garaian, txi-txi-burduntzia eta Agate deuna. Ekainean, ikas-



Udalekuko umeak eta arduradunak Txurdinagako kiroldegiko kafetegian.

kirol-jardueretan arituko dira: saskibaloia, esku-baloia, voleibolea... Asmoa eurentzat kirol berriak izatea da, oinarrizko arauak ezagutu, probatu, jardun... Tartean, xakean ere arituko dira. Ondoren, Txurdinagako kiroldegira joango dira, igeritokira eta, bainu goxoa hartu ostean, bazkaria egingo dute. Bazkaldutakoan, jolas lasaian egongo dira hiru eta erdietan gurasook bila joan arte. Azken batean, taldean egon, elkarrekin jolastu, kirol egin eta elkarren artean ondo pasatuko dute.

**Txurdinagako guraso elkarte indartsu al dabil?**

Ez da erraza erantzuten. Bazkide kopuruari begiratzen badiogu, asko garenez, guraso elkarte indartsu

urte amaierako jai mundiala. Era berean, oso ekimen garrantzitsua da Guraso Eskola. Eta, aurten hasita, ekaineko udaleku irekia.

**Zer asmo duzue geroari begira? Zeintzuk dira zeuen erronkak?**

Lehenik eta behin, dugunari eustea, ez da gutxi eta. Bestalde, orain kirol instalazioei dagokienez, gabezia handiak ditugu. Konponketak zein obra berriak oso beharrezkoak ditugu eta gurasook gure kezka azaldu behar dugu. Azkenik, azpimarratu behar da gurasoen partaidetza handiago ezinbestekoa dugula, Guraso Elkarte eragingarria izango bagara. Eta, erronka garrantzitsuena, euskararen erabilera, gure seme-alabek, eskolan eta eskolatik kanpo euskaraz egin dezaten.

**Urtzi Urrutikoetxea**  
"Mugitzen ez diren geroak  
jaten dituzte konfiantzakoak"

**Miren Agur Meabe**  
"Euskal literaturan  
aniztasuna eta  
maila altua dago"

**Eladio Montiel,**  
Otxarkoagako  
abesbatzaren  
zuzendaria

**Mikel Alvarez,**  
mahatsorri bat  
Etxeresteko  
tonitorrean

**Imanol Agirre:**  
"Buduak ez dira  
zapela jarazteko  
esperantzak"

**MAHATSERRIKO ALDIZKARIA**

**hartu bertan etxean!!!**

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerria, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

DOHAIN

DOHAIN

Sinadura

## MUGARRA (964 M.) OROZKETA (IURRETA)


Durango Orozketa auzora doan errepidea hartu behar dugu. Apur bat pasatuta gero eskumaldean borda handi bat aurkituko dugu eta autoa leku honetan utziko dugu.

Gero errepidetik oinez igoko gara landa batera heldu arte. Han errepideak biragune handia eginez jarraitzen du Marmolería Bilbaina izeneko harrobira.

Landa horretatik ezkerre-rantz zuzen-zuzen pinudian zehar igotzen da bidea har-kaiztegira heldu arte. Harri artean baina ondo seinalatuta dagoen bide batetik igoko gara.

Bide horrek iturriraino eramango gaitu eta handik ezkerre-rantz abiatuz Muga-rrikolanda zehar igoko gara gailurreraino (964 m.).

Inguru horretan ez da bat ere zaila saiak ikustea. Oso urria den hegazti hauek bertan bizi eta hiltzen diren behor, ardi eta behiak jaten ditu eta bide batez kutsaga-riak izan daitezkeen hondakinak garbitzen



Ibilaldi hau, ikusten dugunez, ordu bat eta erdian egin daiteke, gutxi gora behera.

**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Telefonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

O.P.E.: 02/9/97

Santutxuko poteo gunean



## IRAILETIK AURRERA, BILBAOMUSIKAK DANTZA IKASTAROAK ERE EMANGO DITU 'DANTZA GUZTIONTZAT' PROGRAMA HASIKO DUTE DATORREN KURTSOAN

Testua: J. Larrazabal  
Argazkiak: Alberto Ugarte

**Bilbaomusika udal erakundeak dantza ikastaroak eskainiko ditu datorren irailetik aurrera lehenengoz. Aukera zabalak prestatu dute jotak, arin-arin edo mutil-dantzetarik hasita txotis, pasodoble edo baltseak arte. Astean ordu eta erdiko eskolak emango dituzte euskaraz eta erdaraz. Izena emateko epea datorren uztailaren 15ean agortuko da. Bilbaomusikak Solokoetxen eta Deustuan ematen ditu bere eskolak.**

Bilbaomusika Bilboko Udalak musika heziketarako duen erakundea da. Bertan Musika Eskola, Musika Banda, Txistulari banda eta Ikasfolk daude. Lokal nagusia Solokoetxen dauka, Sorkunde kaleko 8 zenbakian hain justu, baina Deustuan ere klaseak eman izan ditu. Bada, orain arteko bere musika eskaintza handitzeko asmoz, datorren irailetik aurrera dantza eskolak be eman egingo dituzte.

'Dantza guztiontzat' jarri diote izena programa horri eta dantza tradizionalaren errepertorio zabala aintzat hartuta, adin guztientzako dantzak irakatsiko dituzte: jota, arin-arin, mazurka, txotis, mutil-dantzak, jauziak, kontradantzak, polka, pasodoble, baltseak, ... bada non aukeratu gero!

Interesa daukatenez uztailaren 15era arte izena

**Dordoka**  
TABERNA  
Pza. San Martín de la Ascensión  
SANTUTXU

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**Kafe**  
Mañari  
Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33



emateko aukera daukate. Eskolan bertan egin ahal dute goizeko 9etatik arratsaldeko ordu-biak bitartean. Matrikula, ostera, irailaren 5ean hasiko da. Bilbon erroldatuta daudenen 50,40 euro ordaindu beharko dute.

Bilbaomusikak hogeitertietatik gora egin ditu musika eskolak ematen eta bertatik mila ikasle gora igaro dira. Eskolak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dituzte. Informazio gehiago gura izan ezker, Sorkunde kaleko lokaletara jo edo, osterantzean, deitu 94 4164785 telefono zenbakira edo bisitatu [www.bilbaomusika.com](http://www.bilbaomusika.com) web gunea.

### JAIA KALEAN

Bestalde, Bilbaomusikako trikitixa ikasle eta irakasleek kalejira egin zuten ekainaren 22an Sorkunde kaleko lokaletatik aterata. Ikasturte osoan zehar ikasitakoa ederto erakutsi zuten neska-mutilek. Solokoetxekeko plazan erromeria antolatu zen eta soinu txikiaren laguntzaz euskal dantzak nagusitu ziren.

Besteak beste, hantxe egon ziren Roberto Arrizabalaga trikitilari ospetsua eta eskolako irakaslea. Berarekin batera, Zabala beterranoa ere apuntatu zen.

Erromeriaz gain, inguruetatik kalejira egin zuten ikasleek, azken urteotako ohiturari jarraituz. Amaitu, hasi ziren lekuan egin zuten, Sorkunde kaleko lokalean alegia. Kontzertua eman zuten guraso eta lagunengana.



**GOJIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

**TELEFONOAK:**

**630 08 09 38**

**659 45 16 22**

# horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Uda sargaritsua ei dator. Tanga hori agirian eroanda konpondu behar dozu?
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Segi, segi igeltsero laguntzaile gisa. Eraikuntza 'nazionala' egin behar ei da eta...
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Herri Urrats, Ibilaldia, Kilometroak, Oinez, ... danetara zoaz. Ibiltzea gustatzen jatzu gero!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Tabakoan aurreztuko dozunagaz detailtxo bat erosiko deusazu zeure bikotekideari, ezta?
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Berba gitxi eginda hobeto gagozala diñoskue baina, kasurik bez! Gora berbatiok!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Kasueen! Zelan itzi dozuz bertan ahaztuta hondartzarako txankletak? Ez dakizu txiringitoraino joateko basamortukoak lako are beroak zapaldu behar dozuza la? Inuxente hori!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Zenbat kilo kendu gura dozuz? Buff! Horretarako harakin baten laguntza behar dozu.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Aurtengo bikiniak inoizko txikerrenak ei dira. Tapa, ia ez dabe ezer tapatzen. Zeuk ikusiko dozu...
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Azkenean zer eta intertotok salbatu zaitu. Ai, motel, ez dekozu erremediorik.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Aurtengo udarako errezeta: Txahala saldu eta oporretan joan. Ez dekozula txahalik? Ba erosi egizu bat ahalik eta arinen!!!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Udako kantea zein izango dan, urtero lez, sanferminetan eta Santutxuko jaietan erabakiko da. Zu babiltz pintxadiskos... ederra egin dogu!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Lanpostu barria hartu dozu baina zaharra oraindik dekozu buruan. Ezin burutik kendu hango konpainia ona, futbol tertuliak eta konspirazioak...

# agenda

**UZTAILAK 5-13**  
KALEALDIA. KALE  
ANTZERKIAREN  
JAIALDIA BILBON.

**UZTAILAK 8-10**  
LEKEITIOKO  
NAZIOARTEKO KALE  
ANTZERKIA JAIALDIA.

**UZTAILAK 9-17**  
SANTUTXUKO JAIK

**UZTAILAK 13**  
KONTZERTUA. SHARON  
JONES AND THE  
DAP-KINGS. KAFE  
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

**UZTAILAK 15-17**  
BILBAO URBAN CIRCUIT.  
AUTO LASTERKETAK  
BILBOKO HIRI  
ZIRKUITUAN.

**UZTAILAK 23-31**  
SAN IGNAZIOKO JAIK



## ELORRIETA-ERREKA MARI INSTITUTUA

Gure helburua

zure  etorkizuna

### BATXILERGOA

**HUMANISTIKOA A eredia**  
**TEKNOLOGIKOA A eta D ereduak**



**HEZIKETA ZIKLOAK**  
**Goi eta erdi mailak**  
**A eredia**

**Informatika**  
**Elektrizitatea**  
**Merkataritza D ereduan ere!**  
**Administrazioa**

Matrikulazio epea ekainaren 30etik uztailaren 6rarte (barne)  
Lehendakari Agirre 184 tfnoa.944028000



[www.elorrieta-errekamari.com](http://www.elorrieta-errekamari.com)